



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

### ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

1. Erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatze eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak ..... 2
2. Pertonekin, familiarekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak ..... 3
3. Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei..... 4
4. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adoptatu aurreko familia-harreragatiko, babesa eta mantenuagatiko laguntzen programa..... 5
5. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa. .... 8
6. Gizarte esku-hartzean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jardueretako Hirugarren Sektoreko erakundeetarako diru-laguntzak (ELK lerroa)..... 11



## 1.- Izenburua

**Erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatze eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2016ko apirilaren 13koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatze eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2016. urterako.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiak bi diru-laguntza mota ditu:

- Langileak (teknikariak eta/edo administrariak) kontratatze laguntzak, gizarteratzearen, ongizate eta parte-hartze sozialaren arloko prozesuetan gero eta eraginkorragoa izango den esku-hartze soziala tokiko esparrutik sustatzeko; izan ere, prozesu horien bidez, laneratze aktiborako prestakuntza-baliabideetara iristen lagundu nahi da, lehenetasunez.
- Immigrazioko langile teknikariekin jarraitze eta jarduerak egiteko laguntzak, lagungarri izan daitezkeen EAEko erakunde-egituran immigrazioak duen errealitateari hobeto eta sakonago erantzuteko, eta, oro har, kultura arteko bizikidetzarako mesedegarri diren esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren burutapena hauxe izan da:

- Lehenengo lerroan: Diru-dotazioa 2.429.247,00 eurokoa izan da. 82 erakunde publikok eskatu dute diru-laguntza eta 81i eman zaie.
- Bigarren lerroan:
  - Langileak kontratatze: Diru-dotazioa 381.920,00 eurokoa izan da. 12 entitateei 377.146,00 € eman zaizkie 16 langileak kontratatze.
  - Jarduerak egiteko dirulaguntzak: Diru-dotazioa 498.080,00 eurokoa izan da. 32 entitateei 502.849,55 € eman zaizkie.

Gizarte-erabilgarritasun eta eraginari dagokionez, nabarmentzekoa da jarduera horien bitartez indartu egiten dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoa garatzen parte hartzen duten eragile guztien —instituzionalen eta sozialen— arteko sare-lana; bereziki, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku-hartzea sustatzeari dagokionez.



## 1.- Izenburua

**Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko abenduaren 18koa, zeinaren bidez egiten baita Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia 2016. urterako.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen bidez, sustatu nahi dira pertsonen autonomia eta komunitatean integratzea sustatzea eta babestea helburu duten jarduerak, eta, batez ere, esperimentazioa edo berrikuntza dakartenak.

Gizarte esku-hartzearen esparrua osatzen dute jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizareratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzen lerro honetarako hasierako diru-zuzkidura 4.342.480,00 €-koa izan zen, eta jarduerak finantzatzeko erabilitako azken zenbatekoa 4.342.476,00 €. Guztira, aurkeztu ziren 484tatik, 267 jarduerari eman zaie diru-laguntza, 156 entitateri guztira. Beraz, 2016 ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan zegoen helburua (200 jarduerak diru-laguntzea) bete da.

Erabilgarritasunari eta gizarte-eraginari dagokionez, azpimarratu liteke jarduera horiek sare-lana sustatu eta indartzen dutela gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten erakundeetako eta gizarteko eragileekin; bereziki pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartzea sustatzen.



## 1.- Izenburua

**Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei**

## 2.- Araua

- 1/2004 LEGE Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoa.
- AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena (1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurri buruzkoa).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako diru-laguntzen programak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzak ezarriz, bizirauteko gutxieneko baliabideak erraztu nahi dizkie emakume horiei, erasotzailearengandik independizatu ahal izateko, enplegu bat aurkitu arte. Izan ere, beren inguruabarren ondorioz (adina, prestakuntza orokor eta espezializaturik eza, eta beste gizarte-egoera batzuk) lana lortzeko zailtasunak izango dituztela uste da. Bitarteko ekonomikoak bermatu nahi zaizkie emakume biktimei, gizarteratzeko erraztasunak izan ditzaten.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzaren aurrekontua 925.000 eurokoa izan da. 279 laguntza-eskari jaso dira, horietatik 143 eskariei eman zaizkie 897.156 euro.



## 1.- Izenburua

**Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adoptatu aurreko familia-harreragatiko, babesa eta mantenuagatiko laguntzen programa**

## 2.- Araua

- 176/2002 Dekretua, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (2002ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.), 416/2005 Dekretuak, abenduaren 20koa, luzatuta (2005eko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.).
- 109/2006 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaiotze edo adoptatzeagatiko diru-laguntza arautzen duena (2006ko ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.).
- 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (2006ko abenduaren 27ko EHAA, 245. zk.).
- 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.), 32/2015 Dekretuak, martxoaren 17koa, aldaturik (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- Agindua, 2015eko uztailaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Ardurapean seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoei buruzko martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak (2015eko uztailaren 3ko EHAA, 124. zk.).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko Dekretuen xedea familientzako diru-laguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutela eta adoptatu aurreko familia-harreragatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzen.

honako jardun-ildo hauek azaltzen dira:

- Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko diru-laguntzak.
- Erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko diru-laguntzak.
- Nazioarteko adopzioagatiko diru-laguntzak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko aurrekontuan, programari 27.571.814,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 26.405.200,00 eurokoa izan zen (% 95,77).

Gastua honela banatu zen:

- 24.928.600,00 euro 30/2015 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira; laguntzetatik 30.308,



ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren; 576, erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak; 25, nazioarteko adopzio sinpleagatik, eta 3, nazioarteko adopzioagatiko laguntzak. 238 kasutan onartu zen % 33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortzearen ondoriozko diru-laguntzak bikoiztea. Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez, 9.161 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren; 12.459 laguntza, bigarren semeagatik edo alabagatik, eta 8.688, hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren % 19,63 (4.894.000,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, % 33,83 (8.432.500,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta % 46,54 (11.602.100,00 euro) Bizkaiko espedienteek.

- 1.471.200,00 euro 255/2006 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira; laguntzetako 1.908 ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren, eta 2, erditzeagatik edo adopzio nazional anizkoitzagatik emandakoak. Era berean, 172 espedientetan onartu zen % 33ko edo goragoko desgaitasunengatik laguntzak bikoiztea. Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez, 31 laguntza lehen haurrarentatik eman ziren; 859 laguntza, bigarren haurrarentatik, eta 1.018 hirugarren edo ondorengo haurrarentatik. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren % 16,45 (242.000,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, % 35,67 (524.800,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta % 47,88 (704.400,00 euro) Bizkaiko espedienteek.
- Azkenik, 176/2002 Dekretua aplikatuz, 495.000,00 euro erditzeagatik edota aurreko ekitaldietan onartutako adopzio anizkoitzengatik emandako laguntzak izan ziren. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren % 16,12 (79.800,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, % 29,09 (144.000,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta % 54,79 (271.200,00 euro) Bizkaiko espedienteek.

Seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik eta mantenuagatik ematen diren laguntzen programak eragin handia eduki du gizartean abian jarri zenetik; horren adierazgarria da aldi jakin batean EAEn izandako jaiotzen eta aurkeztutako eskaeren arteko diferentzia, hau da, programaren estaldura-tasa. Fitxa hau egin denean ez dugu eduki 2016ean izandako jaiotzei buruzko informazio guztia; beraz, 2015eko datuak erabili ditugu. EUSTATEk emandako informazioaren arabera, 2015ean 18.851 jaiotza izan ziren, eta hasiera batean 16.808 eskaera aurkeztu ziren jaio, adoptatu, tutela edo adoptatu aurretik familian hartu ziren 17.304 haurrarentatik. Horrek esan nahi du estaldura-tasa % 91,79 izan zela.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, hauexek dira 255/2006 eta 30/2015 dekretuak aplikatuz ematen diren laguntzen emaitzak:

Laguntza lerroa	Aurreikusitako	Emandako	Gauzatze
-----------------	----------------	----------	----------



	<u>laguntzak</u>	<u>laguntzak</u>	<u>-gradua</u>
Lehen semea edo alaba jaiotzeagatik	9.543	9.192	96%
Bigarren semea edo alaba	14.089	13.318	95%
Hirugarren semea edo alaba	9.650	9.706	101%
Erditze anizkoitzagatik, adopzio anizkoitzagatik, adopzio aurreko harrera anizkoitzagatik, tutela anizkoitzagatik edo nazioarteko adopzioagatik	600	606	101%
Semea edo alaba jaiotzeagatik, adopzioagatik, adopzio aurreko harreragatik, tutela eta haren mantenuagatik desgaitasuna onartuz gero Nacimiento, adopción, acogimiento familiar pre adoptivo, tutela y mantenimiento del hijo o de la hija en los casos de reconocimiento de discapacidad	352	410	116%



## 1.- Izenburua

**Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa.**

## 2.- Araua

- 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.), 31/2015 Dekretuak, martxoaren 17koa (martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.), aldatuta.
- 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.), 32/2015 Dekretuak, martxoaren 17koa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.), aldatuta.
- Agindua, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programako diru-laguntzek helburu hauetako bat dute: seme edo alaba adingabeak edo mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeagatik hartutako lan-eszedentziek edo lanaldi-murrizketek eragindako diru-sarrereren galera konpentsatzea, zati bat behintzat; edo, bestela, hiru urtetik beherako semea edo alaba etxean zaintzeko pertsona bat kontratatzeak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzea.

Helburu honen arabera, 177/2010 Dekretuan langileentzako hiru laguntza-linea hartzen dira kontuan:

1. Seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak.
2. Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak.
3. Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko aurrekontuan, programari 32.577.100,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 29.788.664,70 eurokoa izan zen (% 91,44) honela banatuta:

- 28.749.924,70 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen N linean, 16.793 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik % 7,88 gizonak ziren, eta % 92,12 emakumeak.





Gutzizko gastuaren % 19,20 (5.519.394,26 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta % 80,80 (23.230.530,50 euro) murrizketak diruz laguntzera.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gutzizko zenbatekoaren % 20,10 (5.782.923,06 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen, % 31,10 (8.940.245,80 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko, eta % 48,80 (14.027.822,00 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.

- 711.926,85 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen D linean, 432 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artean % 18,75 gizonak ziren, eta % 81,25 emakumeak.

Gutzizko gastuaren % 10,92 (77.698,42 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta % 89,08 (634.228,43 euro) murrizketak diruz laguntzera.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, % 23,32 (166.031,24 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen, % 24,07 (171.349,04 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko, eta % 52,61 (374.546,57 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.

- 326.813,18 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatuzeko Z linean; 407 pertsona izan ziren linea horren onuradunak, pertsona horien artean % 27,52 gizonak ziren, eta % 72,48 emakumeak.

Gutzizko gastua honela banatu zen lurraldearen arabera: % 10,70 (34.972,72 euro) Arabako espedienteetarako, % 17,54 (57.331,20 euro) Gipuzkoako espedienteetarako, eta % 71,76 (234.507,26 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

2016. urtean, aurreko urteetan bezala, murrizketagatiko laguntzak mantendu dira, bai N lerroan bai D lerroan. Halaber, ikus daiteke gehienbat emakumeek eskatzen dituztela lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak. Azpimarratu behar da ekitaldi honetan D lerroko eskariak gehitu egin direla (aurreko ekitaldian ohartarazi zen), eta, kontuan hartuta populazioa zahartuz doala, espero izatekoa da joera horrek aurrera jarraituko duela.

Errenta-mailen araberako banaketari dagokionez, hauxe da emaitza (eskatzaile guztien portzentajea):

<u>Errenta estandarizatuaren maila</u>	<u>N eta D lerroak</u>	<u>Z lerroa</u>
20.000 euroren zenbatekotik behera	% 65,55	% 4,80
20.000 eta 40.000 euro artean	% 30,30	% 78,82
40.000 eurotik gora	% 4,15	% 16,37



Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, jarraian xehazten dira:

<u>Laguntza-lerroa</u>	<u>Aurreikusitako pertsona onuradunak</u>	<u>Benetako pertsona onuradunak</u>	<u>Gauzatze -gradua</u>
Linea N - Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziengatik edo lanaldi-murrizketengatik ematen diren laguntzak	20.762	16.793	81%
Linea D - Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentziengatik edo lanaldi-murrizketengatik ematen diren laguntzak	347	432	124%
Línea Z - 3 urtetik beherako adingabea zaintzeko langileak kontratatzeagatik ematen diren laguntzak	357	407	114%



## 1.- Izenburua

**Gizarte esku-hartzean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jardueretako Hirugarren Sektoreko erakundeetarako diru-laguntzak (ELK lerroa)**

## 2.- Araua

271/2012 Dekretua, abenduaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituena.

Agindua, 2015eko abenduaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2016ko deialdia egiten da.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Dekretuak diru-laguntzetarako bi lerro biltzen ditu:

- 1.- Esku-hartze sozialeko jarduerak pertsona, familia, talde eta komunitateekin.
- 2.- Esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak.

Diru-laguntzek honako jarduera hauek jaso ahal izango dute finantzaketa: ekintza boluntarioa areagotzera, partaidetza asoziatiboa garatzera, eta, bereziki, esku-hartze soziala gauzatzen duten erakundeak, sareak edo nagusiki autonomia-eremuko federazioak eraikitzen eta hobetzera bideratutako jarduerak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aginduak 2016rako 599.000,00 euroko gehienezko zenbatekoa ezartzen zuen diru-laguntza linea horretarako, eta horietatik 598.999,00 euro erabili ziren helburu horrekin. Ebazpena argitaratu ondoren, 3.413,00 euroren uko egite bat izan zen, aurkeztutako proiektua ezin zelako aurrera atera. Hori dela eta, azkenean diru-laguntza lerro horretarako emandako kopurua 595.586,00 euro izan ziren.

115 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 82ri eman zitzaizen diru-laguntza; 82 proiektu horiek Hirugarren Sektoreko 72 erakunderi zegozkien.